

# Txakurrak gehiegi mimatzen ditugu?



**Gai horri buruz honako ariketa hauek egin ditzakezu:**

- Ikusi bideoa eta galderak erantzunekin lotu.
- Irakurri testua eta zati bat lehenaldian jarri.
- Hitzak euren gaztelaniazko esanahiekin lotu.
- Taldeetan, gaiaren inguruan hitz egin.

## Ikusi bideoa

Bideoa ikusi ostean, lotu galderak erantzun egokiekin:



<https://labur.eus/PYxqV>

### GALDERAK

- Nor ez da joaten txakurren pintxo-poteora?
- Noiz joaten da Mikel Blanco pintxo-poteora?
- Zer gustatzen zaie Mikelen eta Naiararen txakurrei?
- Nor da begetarianoa?
- Norentzat da txakurra familiakoa?
- Noiz sortu zen 'Dog Vivant'?
- Gero eta txakur gehiago daude?
- Euskal Herrian txakurrentzako establezimendu asko daude?

### ERANTZUNAK

- Duela urte eta erdi.
- Naiara Zubimendi bere txakurrarekin.
- Bai, beste hainbat probintzian baino gehiago.
- Ostegunero.
- Mikel Blanco.
- Nagoreren ustez, bai.
- Naiararentzat eta Mikelentzat.
- Hondartzara joatea.

# Irakurri testua

Hemen daukazu erreportajea osorik. Irakur ezazu, gero zati bat lehen aldian jarri beharko duzu.

Askotan entzun dugu txakurrek jabearen antza dutela. Antzekoak izan ala ez, animalia bat etxean izateak hainbat ardura ekarriko dizkio jabeari, eta zaindu egin beharko du, noski.

Bestalde, animalia hauek hainbat lanetarako ere erabiltzen dira: etxeak zaintzeko, artzaintzarako laguntzaile bezala, ehizan, itsuak gidatzeko, drogen kontrolak egiteko... Hala ere, gaur egun, jabeai euren laguntasuna ematea da zeregina txakur gehienentzat. Familia askotan kide bat gehiago dira, eta asko zaintzen dituzte.

Etxean dugun animalia hori mimatzeko aukera asko ditugu: ile-apaindegira eramatea, tratamendu bereziak egitea, arropa panpoxoa janzea... Baina ez hori bakarrik, aukera berri bat topatu dugu: txakurren pintxo-poteoa. Ezagutzen duzu?

## AUKERA BEREZIA

Duela bi urte hasi ziren Donostiako Gros auzoko Zoo-Can dendan txakurrei zuzendutako pintxo-poteoa egiten. "Ostegunetan, pertsonen pintxo-poteora eramaten zituzten txakurrak, eta, bertan, guretzat egindako janaria ematen zieten. Hori ez da osasuntsua animalientzat; beraz, aukera berri hau eskaintzea erabaki genuen", kontatu digu Sonia Quintas (Donostia, 1978) dendariak.



*Mikel Blanco (bere familiarekin), Naiara Zubimendi eta Sonia Quintas.*

Poltsatxo batzuk eskaintzen dituzte: edateko arrain-saltsa berezi bat eta jateko hainbat gailetatxo. "Saltsa horrek azala hobetzen laguntzen die. Pintxo-poteoaren prezioa 1,95 eurokoa da", adierazi digu. Jendearen erantzuna bikaina izaten ari da, dendariaren iritziz: "Auzokoak bakarrik ez, beste zonaldeetatik eta inguruko herrietatik ere etortzen da jendea".

Naiara Zubimendik normalean ez du 14 urteko Kika txakurra eramaten. "Nire lagun asko etortzen dira beraien txakurrekin", adierazi digu. Mikel Blancok, berriz, 11 urteko Tsunami eramaten du: "Neurea lasai asko ibiltzen da". Biek txakurra asko mimatzen dutela aitortu digute eta beraientzat familiako kide bat gehiago dela. "Nik hezurak ematen dizkiot eta ile-apaindegira eramaten dut. Niretzat ume bat bezalakoa da", esan digu Naiarak. Mikel begetarianoa da, baina bere txakurra ez: "Tsunamiri txerriaren belarria asko gustatzen zaio".



**NORA JOANGO GARA?**

Txakurren jabeek, askotan, ez dakite nora joan daitezkeen euren animalia hartuta eta informazioa behar izaten dute. Non egingo dugu lo? Non afalduko dugu? Zein hondartzatara joan gaitzke? Horri guztiari erantzuna emateko sortu zen "Dog Vivant" webgunea. "Duela urte eta erdi sortu genuen, txakurra daukan jendeak informazioa eskura izateko", azaldu digu Nagore Crucetak (Bilbo, 1973). Bere lana zerrendan sartzeko hautagaiekin hitz egitea da eta berak ere bi txakur ditu: 8 urteko Blas eta 12ko Pili.

Guztira 550 establezimendu inguru biltzen ditu atariak: ostatuak, tabernak, txakurrekin lotutako negozioak, ibilbideak... "Normalean bakoitzak badaki bere herrian nora joan, baina hortik kanpo, zer egin? Horretan lagundu nahi dugu", gehitu du. Zerrendan euren negozioa jartzeko, hainbat baldintza bete behar ditu interesatuak: "Ostatuen kasuan, adibidez, bezeroaren logela berean lo egiteko aukera eskaini behar zaio txakurrari. Argazkiak eta informazioa eskatzen dizkiegu gure webgunean fitxa bat betetzeko. Gainera, webgunean agertzeagatik tarifa bat ordaindu beharko dute".

Ez omen da zaila Euskal Herrian horrelako lekuak topatzea: "Beste probintzia batzuetan baino aukera zabalagoa dugu. Izan ere, gero eta txakur gehiago ditugu geure artean; azken urteetan kopurua handitu egin da".


Zuk ere horrela dela uste duzu? Zergatik handitu da, zure ustez? Gehiegi mimatzen al ditugu animaliak?



*Nagore Cruceta, Dog Vivant enpresako langilea da.*

Orain jar ezazu artikularen hasiera lehen aldian. Horretarako, letra lodiz idatzitako formak aldatu beharko dituzu.

Askotan **entzun dugu** txakurrek jabearen antza **dutela**. Antzekoak izan ala ez, animalia bat etxean izateak hainbat arduraz **ekartzen dizkio** jabeari, eta zaindu egin **behar du**, noski. Bestalde, animalia hauek hainbat lanetarako ere **erabiltzen dira** : etxeak zaintzeko, artzaintzarako laguntzaile bezala, ehizan, itsuak gidatzeko, drogen kontrolak egiteko... Hala ere, **gaur egun**, jabeek euren laguntasuna ematea **da** zeregina txakur gehienentzat. Familia askotan kide bat gehiago **dira**, eta asko **zaintzen dituzte**.




## Zer da "gehiegi"?

Begiratu erreportajearen izenburuari: 'Animaliak gehiegi mimatzen ditugu?' Zer esan nahi du "gehiegik"? Lotu hitzak esanahiarekin:

HITZA	ESANAHIA
GEHIEGI	MÁS
GEHIAGO	POCO
ASKO	DEMASIADO POCO, INSUFICIENTE
GUTXI	DEMASIADO
GUTXIAGO	MUCHO
GUTXIEGI	MENOS

## Eta zuk?

Jarri taldean eta komentatu ondorengo galderak:



- Txakurrik badaukazu edo eduki nahiko zenuke? Zergatik?
  - Txakur asko abandonatzen direla uste duzu?
  - Lehen baino jende gehiagok dauka orain txakurra.
- Zure ustez, zer aldatu da?
- Ile-apaindegira eraman, pintxo-poteora, arropa erosi, hotelean utzi...
- Animaliak gehiegi mimatzen ditugu?

## Erantzunak

### Ikusi bideoa

#### GALDERAK

- Nor ez da joaten txakurren pintxo-poteora?
- Noiz joaten da Mikel Blanco pintxo-poteora?
- Zer gustatzen zaie Mikelen eta Naiararen txakurrei?
- Nor da begetarianoa?
- Norentzat da txakurra familiakoa?
- Noiz sortu zen 'Dog Vivant'?
- Gero eta txakur gehiago daude?
- Euskal Herrian txakurrentzako establezimendu asko daude?

#### ERANTZUNAK

- Naiara Zubimendi bere txakurrekin
- Ostegunero
- Hondartzara joatea
- Mikel Blanco
- Naiararentzat eta Mikelentzat
- Duela urte eta erdi
- Nagoreren ustez, bai
- Bai, beste hainbat probintzian baino gehiago

## Irakurri testua

Askotan entzuten genuen txakurrek jabearen antza zutela. Antzekoak izan ala ez, animalia bat etxean izateak hainbat ardura ekartzen zizkion jabeari, eta zaindu egin behar zuen, noski.

Bestalde, animalia hauek hainbat lanetarako ere erabiltzen ziren: etxeak zaintzeko, artzaintzarako laguntzaile bezala, ehizan, itsuak gidatzeko, drogen kontrolak egiteko... Hala ere, garai hartan (orduan...), jabeen euren laguntasuna ematea zen zeregina txakur gehienentzat. Familia askotan kide bat gehiago ziren, eta asko zaintzen zituzten.

## Zer da "gehiegi"?

#### HITZA

#### ESANAHIA

GEHIEGI	DEMASIADO
GEHIAGO	MAS
ASKO	MUCHO
GUTXI	POCO
GUTXIAGO	MENOS
GUTXIEGI	DEMASIADO POCO, INSUFICIENTE

## Transkripzioa

### 1. Zer iruditzen zaizu txakurren pintxo-poteoa?

NAIARA ZUBIMENDI: Ondo iruditzen zait, baina ez naiz etortzen. Baina badaukat (badauzkat) lagunak eta etortzen dira.

MIKEL BLANCO: Bueno, gu bizi ga (gara) hor bertan, kale bertan, eta orduan pintxo-poteo ostegunero egoten gara. Holan (horrela) jendearekin egoten da eta lasai asko ibiltzen (ibiltzen) da, neurea gitxienez (gutxienez).

### 2. Zer gustatzen zaio zure txakurrari?

NAIARA: hondartzara joatea, mendira joatea... Dena dena.

MIKEL: Hondartzara joatea.

### 3. Asko zaintzen duzu? Zer ematen dizu zuri txakurrak?

NAIARA: Bai, asko zaintzen dut. Bai, hezurak, ileapaindegira joaten gara... Dena, dena, nire familia bezala da.

MIKEL: Ni begetarianoa naiz, baina asko gustatzen zaio txerrien belarria. Jo, maitasun asko, azkenean familiako bat da. Osea beste bat da.

### 4. Zer egiten duzue zuen enpresan?

NAGORE CRUCETA: Sortu zen duela urte eta erdi, gutxi gorabehera. Eta asmoa, txakurra daukagun jendearentzat informazioa edukitzea. Normalean zaila da edo ez da hain erraza, asteburu batean plan bat egin nahi baduzu zure txakurrekin, nonbait bilatu behar duzu informazioa, ez? Nora joan zaitezke lo egitera? Edo afaltzera? Edo bazkaltzera? Edo bueltatxo bat ematera? Hondartzak baldin badaude txakurrekin joateko hondartzak... Eta orduan hor daukagu, saiatzan ari gara informazioa jartzea (jartzen) hor.

### 5. Orain lehen baino txakur gehiago ditugu? Zer aldatu da?

NAGORE: Nik uste dut lehen ikusten genuela txakurrak ikusten genituela, ba hori, gehiago igual baserrian edo lan egiteko txakurrak, ez? Eta orain, pixkanaka pixkanaka bueno zuk bueltatxo bat ematen baduzu hortik ikusi dezakezu daudela txakurrak pila bat... Eta gero eta gehiago, nik uste dut.

### 6. Euskal Herrian establezimenduak topatzea erraza da?

NAGORE: Nik esan dezakedana da Euskal Herrian pixkanaka pixkanaka zabaltzen ari garela, hori, aukera gehiago dauzkagula. Igual beste probintzian, igual kanpotik ikusten duzu, badaude probintziak oso zaila da lekuak aurkitzea. Baina hemen, pixkanaka pixkanaka zabaltzen ari gara burua, ez? Edo ez dakit.